

ZUZENDARITZA PROIEKTUA EGITEKO LAGUNTZA-GIDA

2024KO ABENDUA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



ZUZENDARITZA PRESTAKUNTZA

Zuzendaritza- Proiektua egiteko laguntza-gida

Dokumentuaren egileak:

- Hezkuntza Ikuskaritza
- Berritzeguneetako Lidergo Pedagogikoa eta Hezkuntza Eraldaketarako taldea

1. bertsioa. 2022ko abendua
2. bertsioa. 2023ko abendua
3. bertsioa. 2024ko abendua



Aurkibidea

📄 Sarrera

0. Araudi markoa	9
1. Zergatik Zuzendaritza-proiektua?	9
2. Zer da Zuzendaritza-proiektua?	9
3. Nolako izan behar du?	10

📄 Zuzendaritza-proiektuaren atalak

1. Proiektuaren justifikazioa	13
2. Ikastetxearen azterketa diagnostikoa. Ikastetxearen hausnarketa partekatua	14
3. Helburuen definizioa. Erronkak (hobetzeko eremuak) helburu bihurtzen	20
4. Jarduera-ildoan zehaztapena. Helburuetatik ekintzetara	21
5. Proiektuaren komunikazioa	22
6. Proiektuaren jarraipena, ebaluazioa eta doikuntza	23

📄 ERANSKINAK

1. Zuzendaritza-funtzioaren marko-kompetentziala	27
2. Datu bilketa egiteko laguntza-taula	29

📄 TXANTILOIAK

1. Zuzendaritza-proiektuaren ezaugarri formalak eta baloratzeko irizpideak	33
2. Autoebaluazio konpetentziala	35
3. Ikaskuntza prozesuaren azterketarako eredua	39
4. Hezkuntza komunitatearen iritziak. A. Irakasleak	41
5. Hezkuntza komunitatearen iritziak. B. Familiak	43
6. Ikastetxeko informazio bilketa	45
7. Barne-analisirako taula	49
8. Kanpo-analisirako taula	51
9. Erronkak lehenetsi	53
10. Erronketatik helburuetara	55
11. Helburuetatik ekintzetara	57
12. Proiektuaren jarraipena	59

TRESNEN ZERRENDA

DOKUMENTUAREN ATALA		ERANSKINAK		TXANTILOIAK	
		<i>izenburua</i>	<i>orr</i>	<i>izenburua</i>	<i>orr</i>
NOLAKOA IZAN BEHAR DU ZUZENDARITZA-PROIEKTUAK?				1. txantiloia	33
1. PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA					
2. DIAGNOSTIKOA	2.1. Datu bilketa	[1. ERANSKINA] Zuzendaritza-funtzioaren marko kompetentziala	27	2. txantiloia	35
		[2. ERANSKINA] Datu bilketa egiteko laguntza-taula	29	3. txantiloia 4. txantiloia 5. txantiloia 6. txantiloia	39 41 43 45
	2.2. Informazioaren azterketa			7. txantiloia 8. txantiloia	49 51
		2.3. Erronkak identifikatu			9. txantiloia
3. ERRONKAK				10. txantiloia	55
4. HELBURUETATIK EKINTZETARA				11. txantiloia	57
5. PROIEKTUAREN KOMUNIKAZIOA				12. txantiloia	59
6. PROIEKTUAREN JARRAIPENA	Aginte koadroa			13. txantiloia	61

Sarrera

0. ARAUDI MARKOA

Zuzendaritza taldearen hautaketa jarraian azaltzen den arau markoak zehaztu eta regulatzen du. Arau hauetako bakoitzetik eratorritako aspektuak jasotzen dira hautaketa-prozesu osoan, Zuzendaritza Proiektuaren diseinua egin eta defendatzea barne:

- **3/2020 Lege Organikoa (LOMLOE)**, abenduaren 29koa hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 (LOE) lege organikoa aldatzen duena.
- **17/2023 LEGEA**, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena.
- **29/2023 dekretua**, otsailaren 28koa, hezkuntzaren arloan eskumena duen sailaren titulartasuneko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan zuzendaritza-funtzioa eskuratzeari, prestakuntza jasotzeari, hura ebaluatzeari eta aitortzeari, eta hura osatzen duten karguak uzteari buruzkoa.
- **Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendariak hautatzeko merezimendu-lehiaketa deitzen duen Agindua**, XXXXko abenduaren XXkoa. Urtez urte zehazten joango da deialdi bakoitzari dagozkion xehetasunak.

1. ZERGATIK ZUZENDARITZA PROIEKTUA. HEZKUNTZA-LIDERGOAREN GARRANTZIA

Nazioarteko ikerkuntzek eta hezkuntza-praktikak gero eta modu nabarmenagoan aitortzen dute ikastetxeetako zuzendaritza-taldearen zeregina. Funtzionamendua hobetzeko eta aldaketa kudeatzeko gehien eragiten duen faktoreetako bat da.


Ikasleengan eta haien ikas-irakaskuntzaren funtsezko gaietan esku-hartzen duten liderrek eragin handiagoa dute ikasleen emaitzetan (akademikoetan eta akademikoak ez direnetan).

2. ZER DA ZUZENDARITZA-PROIEKTUA?

XXI. mendeko eskola-zuzendaritzak, hezkuntza-testuinguru eta -erronka berriei erantzuteko estrategia berriak bultzatu behar ditu. Eskola-zuzendaritzak, hezkuntza-komunitateak aurreikusitako xedeak erdietsi eta ikasleen arrakasta lortzeko bideak ezarriko ditu. Izan ere, estrategia eta helburu partekatuak zehaztea da zuzendaritza taldearen eginkizun nagusienetako bat. Hori horrela, argi dago ikastetxeko zuzendaritza taldeko kide izateak proiektu kolektibo baten lidergoa hartzea dakarrela, lidergo pedagogikoa, hain zuen ere.

Testuinguru honetan, ikastetxeko dokumentu estrategikoen arteko lotura egitea lehenbiziko eginkizunetako bat izan beharko litzateke edozein zuzendaritza taldearentzat esku artean izango duen proiektu kolektiboa edo komunitarioa aurrera atera nahi badu.

Zuzendaritza-proiektua ikastetxeko dokumentu estrategikoa da. Aurreko irudian ikusten den bezala, Ikastetxearen estrategia epe ertainera zehazten duena, hain zuzen ere. Gainera, dokumentu hau, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuarekin lerrokatuta egongo da eta ikasturte bakoitzeko IUP ezberdinetan zehaztuko da proposatutako helburu edota asmo horiek eguneroko errealitatearekin bat egin dezaten. Dokumentu hau loteslea da eta Ikastetxeko Hezkuntza Proiektutik abiatuta zuzendaritzaren iparrorratza izango da. Era berean, Zuzendaritza-proiektuak ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan proposamenak eta berritze-lerroak sar ditzake; beraz, ez da erreferentzia tresna pasiboa soilik, ikastetxea zuzentzeko eta eraldatzeko tresna aktiboa baizik.



Zuzendaritza Proiektuak ikastetxearen testuinguruaren diagnostikotik abiatuta, ikastetxeko helburuak aurrera eramateko, garatzeko eta ebaluatzeko ekintzak zehaztuko ditu, baita proiektuaren komunikazio prozesua ere. Era berean, jasoko ditu, zuzendaritza-proiektuaren jarraipena, ebaluazioa eta doikuntza egiteko aukera emango duten lorpen adierazleak.

Proiektuak, besteak beste, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren arloko edukiak jasoko ditu, baita hizkuntza-normalizazioaren arloko edukiak ere.

Zuzendaritza-taldeak proiektua izango du bere agintaldiaren ardatz.


3. NOLAKOA IZAN BEHAR DU ZUZENDARITZA-PROIEKTUAK?

- **Hezkuntza-komunitate osoarena.** Hezkuntza-komunitate osoaren iritziak, itxaropenak, beharrak, ametsak... bilduko dituen.
- **Unean uneko errealitateari egokitu.** Momentu jakin batean aztertutako errealitatea jasotzen du eta erantzuna ematen dio.
- **Bizia, arina eta zehatza** Une oro erraz aldatzeko eta errealitateari egokitzeko dokumentua izan behar du, zehatza, argia, laburra eta lanerako erreferentzia.
- **Ikastetxeko dokumentu estrategikoekin koherentea.** Ikastetxearen xedea eta norabidea zehazten dituzten dokumentu estrategiko guztien ildoak bilduko ditu.
- **Eraginkorra eta etengabeko hobekuntzara bideratuta.**



Zuzendaritza-Proiektuaren atalak

Zuzendaritza-proiektua ikastetxearen testuingurutik abiatuko da, hau da, hezkuntza-komunitateko kideen beharrak eta itxaropenak identifikatzean eta errealitate hori hobetzeko zein lehentasun bete behar diren zehaztean oinarritu behar du... Diagnostikoaren ondoren, helburuak eta ekintzak definituko dira eta proiektuaren **komunikatzeko** estrategia zehaztuko da. Azkenik, proiektuaren jarraipena, ebaluazioa eta doikuntza egingo da.



1. PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

Atal honetan alderdi hauek garatuko ditugu:

1.1. Proiektuaren justifikazioa, aurkezpena eta zuzendaritza taldearen identifikazioa. Sustatu nahi diren balioak eta lidergo estiloa.

1.2. Zuzendaritza-proiektuaren lehentasunak. Zuzendaritza-funtzioaren marko-kompetentziala oinarri hartuta, Zuzendaritza-proiektuan ikastetxerako ezarriko dituen lehentasunak.

[1. ERANSKINA. Zuzendaritza-funtzioaren marko kompetentziala]

1.3. Prozesuaren deskribapena. Proiektuaren diseinua modu eraginkor batean egin ahal izateko, hainbat urrats proposatzen dira. Hauek izan daitezke:


- Komunikazioa. Prozesua abian jartzen dela hezkuntza komunitateari jakinarazi.
- Eragileak identifikatu. Prozesuan parte-hartuko duten eragileen identifikazioa egin eta zehaztu noiz eta nola egingo duten.
- Diagnostika. Jasotako datuen azterketa egin eta hurrengo 4 urteetarako erronkak zeintzuk izango diren lehenetsi.
- Helburuak. Lehenetsitako erronkak helburu bihurtu zer, nola eta zertarako galderei erantzun diezaioten.
- Ekintzak. Helburuak gauzatzeko ekintzak definitu.
- Adierazleak. Ekintzen eta helburuen betetze mailaren jarraipena egiteko irizpideak diseinatu.



2. IKASTETXEAREN AZTERKETA DIAGNOSTIKOA. IKASTETXEAREN HAUSNARKETA PARTEKATUA

Ikastetxearen azterketa diagnostikoa funtsezko tresna da hezkuntza-komunitatearen egoera eta beharrak ulertzeko. Diagnostiko zehatz eta objektibo batek behar errealekin bat datorren ekintza-plana sortzea ahalbidetuko du. Hau da, azterketa honek, ikastetxeak datozen 4 urteetarako lehentasunezkoak izango diren erronkak identifikatzen lagunduko dizu. Honek, Hezkuntza-Komunitate osoa norabide berean bultzatzeko aukera paregabea eskainiko du.

Gida honek proposatzen duen prozedura jarraian dagoen infografian ikus dezakezu ikastetxearen hausnarketa partekatua modu ordenatu eta eraginkorrean egiteko. Bertan, 3 urrats aurreikusten dira:




2.1. Datuen bilketa

Zuzendaritza proiektu bat garatzeko eta hezkuntza zentro baten egoera diagnostikatzeko, funtsezkoa da hainbat alderdi aztertzea, horiek zentroaren errendimenduan, giroan eta epe luzeko arrakastan eragin zuzena baitute. Hona hemen adituen iritziz aztertzea komeni diren eremu nagusiak:

[2. ERANSKINA. Datu bilketa egiteko laguntza-koadroa]

- **Ikasleen guztien arrakasta.** Ikastetxearen eginbeharreko nagusia da. Helburua ikasle guztiek euren egoerari egokitutako emaitzarik gorena jasotzea da. Zenbateraino lortzen da? Ikastetxeak zein bide, egitura eta prozedura dauka hori lortzeko? Nolako arreta eskaintzen diegu ikasle guztiei euren arrakasta lortzeko? Eremu honetan jasotako datuak 3 elementu gako hauen inguruan multzokatu daitezke:
 - Curriculumaren garapen maila
 - Emaitza akademikoak
 - Aniztasunari erantzuna emateko modua
- **Bizikidetzaren positiboa eta ongizatea.** Hezkuntza komunitatearen ongizatea ezinbestekoa da ikasleek behar duten ikas-giro egokia bermatzeko. Honekin batera, ikastetxeak hainbat tresna eta egitura martxan jarriko ditu. Testuinguru honetan, hurrengo elementuak aztertzea aholkatzen da:
 - Hezkuntza komunitatearen ongizatea
 - Bizikidetzaren positiboa bultzatzeko prebentzio neurriak
 - Gatazken kudeaketa
- **Hezkuntza berrikuntza eta garapen profesionala.** Gizartea aldatzen doan heinean ikastetxea ere aldatzen joan behar da. Bere jarduna hobetzen dela ikusi behar da. Nolako ohitura dago ikastetxean berrikuntzak, hobekuntzak... txertatzeko? Honen harira, irakasleen jardunaren ebaluazioa eta eskaintzen zaien garapen profesionalerako aukerak zuzenki lotuta daude ikastetxearen hobekuntza prozesuekin. Hortaz, hurrengo puntu hauek aztertzea lagungarria da:
 - Ikastetxeak berrikuntzak inplementatzeko duen gaitasuna edo ohitura
 - Irakasleen formazioa eta trebakuntza
 - Irakasleen jardunaren ebaluazioa
- **Ikastetxearen estrategia eta antolaketa eraginkorra.** Ikastetxearen antolaketa zehaztutako estrategiari erantzun behar dio. Estrategia, berriz, ikastetxeak duen testuinguruari. Era berean, ikastetxeak dituen baliabideak estrategia eta antolaketa hori baldintzatuko ditu. Horregatik, eremu honetan 3 gako nagusi hauei so egitea aholkatzen da diagnostikoa egiteko orduan:
 - Testuinguruaren azterketa orokorra
 - Azpiegiturak eta baliabideak
 - Ingurunearekiko harremana



2.2. Informazioaren azterketa


Bildutako datuen azterketa egiten eta ondorio garbiak ateratzen lagunduko duen tresna aurkezten da gida honetan: AMIA. Tresna honek, zuzendaritza-taldeari aukera emango dio erabaki informatuak hartzeko eta zuzendaritza-proiektua diseinatzeko.

Bertan, ikastetxe barruko faktoreek duten eragina aztertuko da (barne analisia) eta ikastetxetik kanpoko dauden faktoreek ere sortzen duten eragina aztertuko da (kanpo analisia).

Garrantzitsua da identifikatzea zein esparrutan mugatzen den analisi bakoitza. **Barne analisia** egitean Hezkuntza komunitatea indartzen edo mugatzen duten **INDARGUNEA**K eta **AHULEZIA**K azaleratuko dira. **Kanpo analisia** egitean Hezkuntza Komunitateari lagundu edo oztopatu diezaioketen **AUKERA**K eta **MEHATXUA**K azaleratuko dira.

AMIA erabiltzean ondoren azaltzen diren ideiak hartu behar dira kontuan:

- Datuez gain, pertsonen liritziak jasotzen ari garela, beraz **subjektibitate konponente handia** du.
- Ez du emaitza erabakigarririk ematen**, garapen estrategikorako informazioa baizik.
- Une batean egindakoa denez **momentu horri erreferentzia egiten diola** eta aukeratutako epea igarotzen denean beste hausnarketa bat egin beharko dugula.
- Ikastetxeko begirada integrala ziurtatu ahal izateko, datu bilketan aztertutako **eremuek islada izatea komeni da** AMIAko koadrante ezberdinetan.



2.2.1. Barne analisia: Ikastetxearen eragin eremuaren barruan dauden aldagaiak aztertuko ditugu hemen (komunitateko-kideen beharrak, espektatibak, iritziak..., ikasleen emaitzak, azpiegituren egoera, IHP, AJA...). Datu bilketa egiteko proposatutako eremuak kontuan hartzea aholkatzen da. Modu horretan, prozesu osoa modu ordenatuan burutuko litzateke koherentzia handia emanez.

Barne analisiko taula betetzeko argibideak

Barne analisia egiteko hezkuntza-komunitateko kideen (ikasleak, irakasleak, familiak, gainontzeko langileak...) beharrak eta espektatibak, iritziak, ametsak jasoko dira. Horretarako, tresna hauek erabili daitezke:

- Konpetentzietan oinarritutako Zuzendaritza taldearen autoebaluazioa.
[2. txantiloia. Autoebaluazio konpetentziala].
- Ikastetxeko dokumentu/plan/proiektuen balorazioa.
[4. txantiloia. Ikastetxeko informazioa jasotzeko adierazlearen proposamena].
- Ikastetxeko emaitzak: barne eta kanpo ebaluazioetatik eratorriak (akademikoak eta ez-akademikoak).
[5. txantiloia. Eskola emaitzen azterketarako eredu].
- Hezkuntza komunitatearen iritziak
[6. txantiloia. Hezkuntza komunitatearen iritziak].
- Aurreko urteetako Zuzendaritza-proiektuaren balorazioaren hobekuntza proposamenak.
- Baliabideen kudeaketa (orduak, materialak, arduren banaketa, dirua, teknologia baliabideak, gela hornidurak...).

Barne analisia egin ondoren identifikatuko ditugu **INDARGUNEAK** (ikastetxeak dituen barne-faktore sendoak) eta **AHULEZIAK** (ikastetxeak dituen hobetu beharreko alderdiak).



BARNE-ANALISIRAKO TAULA		
EREMUA	ALDAGAIA	INDARGUNEAK eta AHULEZIAK
Ikasle guztien arrakasta	Curriculumaren garapena	INDARGUNEAK: Banakako zein taldeko tutoretzak gauzatzen dira ikasleen beharrei arreta eginez. AHULEZIAK: Koordinaziorako tarteak ez dira eskaintzen neurri bateratuak hartzeko.
Bizikidetzeta + eta ongizatea	Gatazken kudeaketa	INDARGUNEAK: Jazarpen kasuen %100 egindako txostenen jarraipena egiten da. AHULEZIAK: Detektatutako jazarpen kasuak adituek dioten kopuruaren oso azpitik daude.
Berrikuntza
Estrategia eta antolaketa eraginkorra	Komunitate izaera	INDARGUNEAK: IHP eguneratua dago eta ZP komunitatearen beharrekin osatuta dago. AHULEZIAK: AMPAren sortu beharreko elkarlan taldeek funtzionamendurako adostasunik ez dute

ikus 7. txantiloia

2.2.2. Kanpo analisia: Ikastetxearen eragin eremutik kanpo dauden aldagaiak aztertuko ditugu hemen (Hezkuntza Sailaren politikak, Udalerriko jaiotze-tasa, Arau aldaketak, inguruko beste ikastetxeen eragina, beste erakunde batzuekin harremanak..). Datu bilketa egiteko proposatutako eremuak kontuan hartzea aholkatzen da. Modu horretan, prozesu osoa modu ordenatuan burutuko litzateke koherentzia handia emanez.

Kanpo analisiko taula betetzeko argibideak

Ikastetxean eragina duten ondoko kanpo faktoreen inguruko informazioa azter daiteke: biztanleriaren bilakaera, migrazioa, udalerraren testuinguru sozioekonomikoa eta soziolinguistikoa, Hezkuntza Sailak indarrean dituen ildoak, baliabideak, laguntza zerbitzuetatik eratorritako lan ildoak edota orientabideak, legedia, araudia, kanpotik datozen eskaintzak (berrikuntza, metodologia, digitalizazioa...), kanpo-eragileen iritzia eta proposamenak ikastetxeari buruz (Udaleko sail ezberdinak, Aldundia, herriko/auzoko talde eragileak, Hezkuntza, beste ikastetxeak...).

Kanpo analisia egin ondoren identifikatuko dira **MEHATXUAK** (ikastetxeak dituen helburuak eta erronkak lortzeko zailtasuna sortzen dituzten kanpo faktoreak) eta **AUKERAK** (ikastetxeak dituen helburuak eta erronkak lortu ahal izateko abaguneak).



KANPO-ANALISIRAKO TAULA		
KANPO EGOERAREN ANALISIA ALDAGAIK	DATUAK eta INFORMAZIO ESANGURATSUA	MEHATXUAK eta AUKERAK
Ikasle guztien arrakasta	Ikasleen emaitzak	AUKERAK: EDen emaitzak eskolako irakasleen garapen profesionalerako plana egiten lagundu dezake. MEHATXUAK: Kanpo frogak "preparatzea" eta emaitzak benetakoak ez izatea.
Bizikidetzeta + eta ongizatea
Berrikuntza	Metodologia - antolaketa berriak	AUKERAK: Irakasleen hausnarketa egin da matematika eta Irakurketa-idazketa beharrak identifikatzeko. MEHATXUAK: Ikasleen beharrekin bat datorren neurri egokirik ez da topatu.
Estrategia eta antolaketa eraginkorra	Ikasleen jatorria	AUKERAK: Ikasleen jatorri anitzak kulturartekotasun zabal eta sakona egiteko aukera ematen du. MEHATXUAK: Ikasle matrikulatu berrien %20 ez da Euskara ezta Gaztelania ere.


ikus 8. txantiloia

2.3. Erronkak identifikatu

Behin barne eta kanpo analisia egiten dela, koadrante bakoitzean dagoen informazioarekin ikastetxearen etorkizuna bideratuko duten erronkak identifikatu behar dira. Koadrante bakoitzetik 2-3 erronka identifikatzearekin nahiko izan daiteke (informazio nahikoa baldin badago). Horretarako hurrengo irudian azaltzen den prozesua jarraitzea aholkatzen da:

- Ahuleziak, zuzendu.
- Indarguneak, mantendu.
- Mehatxuei aurre egin.
- Aukerak, aprobetxatu.

Behin erronkak definituta daudenean, modu kolaboratiboan lehenetsuneko 3-5 erronka aukeratzea komeni da.



IDENTIFIKATUTAKO ERRONKAK

EREMUA	ERRONKAK
1. Ikasleen arrakasta	<ul style="list-style-type: none"> • Koordinazio estruktura sortu eta funtzionamendurako adostasunak hartzea. • Irakasleen garapen profesionalerako plana sortzea.
2. Bizikidetzeta + eta ongizatea	<ul style="list-style-type: none"> • Jazarpenari ikuspegi zabal eta sakonagoa ematea, detektatu ez direnak azaleratzeko. • Familien eta ikasleen iritzien jasoketa eta erantzutea bultzatzea.
3. Berrikuntza eta garapen profesionala	<ul style="list-style-type: none"> • Irakasleek egindako formakuntzak, ikasleen beharrei begira egitea. • Matematikan eta irakurketa-idazketan detektatutako beharrei erantzungo dien neurriak garatzea.
4. Estrategia eta antolaketa eraginkorra	<ul style="list-style-type: none"> • Herri hezitzaileak eskaintzen dituen ekintzak familia tipologia guztiei heltzeko prozedurak martxan jartzea. • IGEarekin sortu beharreko elkarlanerako taldeen funtzionamendurako dekalogoia sortzea.

3. HELBURUEN DEFINIZIOA. ERRONKAK HELBURU BIHURTZEN.

Helburuak definitzeko, **AMIA** tresnatik eratorritako erronkak hartuko dira oinarri. Zehazki, modu kolaboratiboan lehenetsitako 3-5 erronka kontuan hartuko dira.

Ondoren, helburuak 2. eranskinean deskribatzen den zuzendaritza-funtzioaren **marko kompetentzialarekin** uztartuko dira (gerta daiteke helburu batek kompetentzia bat baino gehiagori ekarpena egitea).

Helburuek **ZERTARAKO?** Galderari eman behar dio erantzuna (Ikastetxeko bizikidetzak hobetzeko, ikasle bakoitzari hezkuntza-erantzun egokiena emango zaiola bermatzeko...). Horrek adieraziko baitu, benetan lortu nahi den hori. Hala eta guztiz ere, helburuen formulazioan **ZER, NOLA** eta **ZERTARAKO** galderen erantzuna jasotzea aholkatzen da.

Helburuak **argiak** izan behar dute eta **ekintza** bideratzen lagundu behar digute.

Honetaz gain, **SMARTS** ezaugarriak kontuan hartzea gomendatzen da:



ERRONKAETATIK - HELBURUETARA	
ANALISIAREN ONDORIOAK	HELBURUA ZEHATZTU
Hobetzeko eremua 1: Koordinazio estruktura sortzea	Ikasleei banaka zein taldekako arreta egokia egitea, neurri hezitzaile bateratuak hartzeko koordinazioak sortuz, ikasleen garapen integrala lortzeko.
Hobetzeko eremua 2: Irakasleen garapen profesionala.	Irakasleen garapen profesionalerako plana egitea, ikasleen beharren hausnarketa eginez, ikasleen garapenean dugun inpaktua areagotzeko.
Hobetzeko eremua 3: Ikasleen ongizatea	Ikasleen artean sortzen diren harremanei begirada sakona eta zabala ematea, banaka zein taldekako tutoretza egokiak eginez, jazarpen egoera posible denak azaleratzeko.
Hobetzeko eremua 4: Familiekin elkarlana	Familia eta ikastetxearen arteko prozedurak adostea, idaztea eta garatzea, eskola komunitateko kideen parte-hartzea erraztuz, guztiek ikastetxean lekua dutela sentitzeko.
...	...

Zer? Nola? Zertarako?

ikus 10. txantiloia

4. JARDUERA-ILDOEN ZEHAZTAPENA. HELBURUETATIK EKINTZETARA

Helburuak zehaztu ondoren ekintzak planifikatu eta horien **JARRAIPEN ADIERAZLEAK** definituko dira, hau da, prozesua nola gauzatu ahal izateko adierazleak. **Jarraipen adierazleak ekintzekin lotuta daude.**

Ondoren, ekintzak denboralizatuko dira agintaldirako epean.



HELBURUETATIK EKINTZETARA

LEHENETSITAKO HELBURUAK	EKINTZA	JARRAIPEN ADIERAZLEAK	DENBORALIZAZIOA			
			23-24	24-25	25-26	26-27
<p>1. Helburua: Ikasleei banaka zein taldekako arreta egokia egitea, neurri hezitzaile bateratuak hartzeko koordinazioak sortuz, ikasleen garapen integrala lortzeko.</p>	<p>EK1.1. Tutoretza saioak aztertzeko txosten eredu bat sortzea. EK1.2. Pedagogikan / mintegi saioan txostenaren emaitzak aztertu eta hobekuntzarako neurriak proposatu. EK1.3. Neurrien proposamenak klaustroan aztertu, findu edota berriak sortu eta ondoren neurriak adostu. EK1.4...</p>	<ul style="list-style-type: none"> Tutoretza saioak aztertzeko txostena sortu da. Klaustroan hobekuntzarako proposamenak adostu dira. Hobekuntzarako proposamenen jarraipena egiteko taldea sortu da. Adostutako hobekuntzek ikasleengan izandako inpaktua neurtzen da. Hartutako neurrien doikuntza egin da. 	●			
<p>2. helburua: Irakasleen garapen profesionalerako plana egitea, ikasleen beharren hausnarketa eginez, ikasleen garapenean dugun inpaktua areagotzeko.</p>	<p>EK2.1. Irakasleen emaitzen azterketarako prozedura irakasle-taldearekin modu parte-hartzailean adostea EK2.2. Irakasleen azterketatik eratorritako ondorioekin irakasleen garapen profesionalerako plana sortzea. EK2.3. Irakasleen garapen profesionalerako planaren araberako formakuntza desberdinetako ibilbideak proposatu EK2.4...</p>	<ul style="list-style-type: none"> Talde eragile bat sortu, kronograma prestatu eta ikaskuntza ibilbide desberdinak diseinatu. Ibilbide formatibo desberdinen garapena. Formakuntza desberdinen ikasleengan duten inpaktua neurtu. Ibilbide formatiboaren doikuntza. 	●	●	●	●
<p>3. helburua: Irakasleen artean sortzen diren harremani begirada sakona eta zabala ematea, banaka zein taldekako tutoretza egokiak eginez, jazarpen egoera posible denak azaleratzeko.</p>	<p>EK3.1. Formakuntza saioak antolatu ikasleen behaketa egokia egiteko. EK3.2. Ikastetxe mailako erabakiak hartzea eta elkarbizitza planean idaztea, begirada zabala eta sakona gauzatzeko. EK3.3. Berritutako elkarbizitza plana aurrera eramateko taldea sortzea. EK3.4...</p>	<ul style="list-style-type: none"> Formakuntzaren ondorengo erabakiak elkarbizitza planean idatzi dira. Elkarbizitza plana aurrera eramateko taldea sortu da. Elkarbizitzarako neurri berriak aplikatzen dira. Elkarbizitza plan berrikuspen eta doikuntza. 	●			
<p>4. helburua: Familia eta ikastetxearen arteko prozedurak adostea, idaztea eta garatzea, eskola komunitateko kideen parte-hartzea erraztuz, guztiek ikastetxean lekua dutela sentitzeko.</p>	<p>EK4.1. Prozesu parte-hartzailea gidatuko duen talde eragilea sortzea. EK4.2. Prozesu parte-hartzailearen ildo nagusiak familia tipologia ezberdinetako kideekin adostea EK4.3. Adostutako prozedurak idaztea EK4.4...</p>	<ul style="list-style-type: none"> Talde eragilearen kronograma aurkeztu dela jaso da egitura horren lehen bileraren aktan. Familia tipologia ezberdinen ekarpenak jaso dira. Adostutako prozedurak dokumentu batean jaso dira. Prozedurak jasotzen dituzten ekintzak burutu dira. 	●	●	●	●

ikus 11. txantiloia

5. PROIEKTUAREN KOMUNIKAZIOA

Behin zuzendaritza proiektua idatzita eta onartua dagoenean, ikasturtero komunitateari proiektuaren jarraipenaren berri emango diogu ohikoak diren komunikazio bideetatik hainbat arrazoientatik:

- Hezkuntza komunitatea helburu berrietara begira jartzeko,
- Aliatu berriak lortzen laguntzeko eta
- Proiektua bera indartzeko.

Lan honetan laguntzeko, hurrengo pausuak ematea aholkatzen da:

- **Komunikazio kanalak zehaztu.** Ikastetxeak komunikaziorako erabili ohi dituen edota erabili nahi dituen kanalak zehaztuta izatea komeni da (web orria, emaila, sare sozialak, iragarki taula...)
- **Jasotzaileak definitu.** Nortzuk izango dira gure mezuen edo komunikazio ekintzen hartzaileak? Norentzat ari gara komunikatzen? Adib: ikasleak, familiak, irakasle berriak, auzoa/herria, gurekin lan egiten duten erakundeak...
- **Noiz egingo diren komunikazio ekintzak aurreikusi.** Hurrengo 4 urtetan egin daitezkeen komunikazio ekintzak noiz egingo diren zerrendatzea aholkatzen da. Adib: ZP publiko egin onartua izan bezain pronto, egindako ekintza baten berri eman berau gauzatu ondoren, ZPren helburuekin infografia/triptiko bat zabaldu ikasturte hasieran...

Adibide moduan agintaldiaren 1. urtean. agertzen den egutegi batean jaso daitezke aurreikusitako komunikazio-ekintza guztiak.

URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA
	Eskerrak eman prozesuan parte-hartu dutenei [e-mail]	ZP aurkeztu klaustro eta OOG [ikastetxean]	ZP publiko egin [web]
MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA
ZP infografia familiei bidali [email]			
IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA
ZP irakasle berriei banatu [Paperean]	Ikasturterako helburuak jakinarazi [Web + email + OOG bilera]		1.1. ekintzari buruzko albistea publikatu [Herriko prentsan]

Hurrengo ikasturteetan egitura berdina jarraitu daiteke komunitateari informazioa zabaltzeko.

6. PROIEKTUAREN JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA DOIKUNTZA

Helburuak lortu diren ala ez jakiteko edota zein mailatan lortu diren jakiteko, **LORPEN ADIERAZLEAK** definituko ditugu.

Lorpen adierazleak helburuekin lotuta daude, eta hauekin, jakin nahi dugu, garatutako ekintzen bitartez, zuzendaritza-proiektuaren helburua bete den ala ez.

Azkenik, erabakiak hartzea errazten digun tresna bat erabiliko dugu: **AGINTE KOADROA**. Aginte-koadroak Zuzendaritza-proiektuaren agintaldiko urte-bakoitzerako adierazle-multzo koherente bat biltzen du. Helburuei, prozesuei eta emaitzei buruzko informazio erabakigarria jasotzen du, oso modu bisualean eta intuitiboan.



2023-2027 AGINTE KOADROA				DENBORALIZAZIOA			
	kompetentziarekin lotura	helburuak	LORPEN ADIERAZLEAK	23-24	24-25	25-26	26-27
1.H	K.2. Eraldaketa-antolaketa K.7. Elkarbizitza positiboa	Ikasleei banaka zein taldekako arreta egokia egitea, neurri hezitzaile bateratuak hartzeko koordinazioak sortuz, ikasleen garapen integrala lortzeko.	Ikasleen Matematika emaitzak % 10 hobetu dira, Irakurketa saiok egunero gauzatzen dira eta ikasleen idazketa-produkzioa % 20 igo da.		●		●
			Jazarpen kasuen %100en jarraipena egiten da.	●	●	●	●
2.H							
3.H							
4.H	K.5. Ikasle guztien arrakasta K.7. Elkarbizitza positiboa K.8. Elkarrekin ikasten duen komunitatea	Familia eta ikastetxearen arteko prozedurak adostea, idaztea eta garatzea, eskola komunitateko kideen parte-hartzea erraztuz, guztiek ikastetxean lekua dutela sentitzeko.	IGEarekin elkarlanerako sortutako taldeen jarraipena egin da eta hauen erabilgarritasuna aztertu eta beharreko doikuntzak egin dira.	●	●	●	●
			Familia berrientzako harrera-plana "familia laguna" ekimena erabiliz gauzatzen da.	●	●	●	●

ikus 13. txantiloia

ERANSKINAK

1. ERANSKINA

ZUZENDARITZA FUNTZIOAREN MARKO-KONPETENTZIALA

Konpetentziak eta zehaztapena	Deskriptore konpetentzialak
<p>1. PLANGINTZA ESTRATEGIKOA</p> <p>Ikastetxearen kulturatik abiatuta, epe-ertaineko helburuak eskola-komunitatearekin zehaztu eta adostutako estrategia hedatu, gainbegiratu eta ebaluatu.</p>	<p>K1.1. Hezkuntza komunitatearen eta gainontzeko eragileen beharrak, iritziak eta itxaropenak jaso eta analizatu.</p> <p>K1.2. Ikastetxeko indarguneak eta hobekuntzarako esparruak identifikatu, testuingurua, hezkuntza-sistemaren ildo estrategikoak eta hezkuntza-araudia kontuan hartuta.</p> <p>K1.3. Hezkuntza komunitatearen parte hartzearekin epe-ertaineko helburuak adostu eta zehaztu.</p> <p>K1.4. Zehaztutako helburuak hedatu, komunikatu, berrikusi eta eguneratu.</p>
<p>2. ERALDAKETARAKO ANTOLAKETA</p> <p>Ikastetxea antolatzeko berrikuntza eta ikerkuntzatik abiatuta eredu eraginkorra zehaztu eta inklusio eta ekitatearen printzipioetan oinarritu.</p>	<p>K2.1. Ikasleen ikaskuntzak hobetzeko berrikuntza-aukerak identifikatu eta helburuak zehaztu, eta, ikerketa-esparru pedagogiko propioa sortu.</p> <p>K2.2. Ikaslea erdigunean izango duen antolaketa-eredu inklusiboa definitu.</p> <p>K2.3. Agertoki, aldaketa eta behar berrien aurrean malgua den antolaketa-egitura zehaztu.</p> <p>K2.4. Baliabideen, denboraren eta espazioen antolaketa eta esleipenerako irizpideak adostu, publiko egin eta horren arabera jokatu.</p> <p>K2.5. Lankidetzeta, talde-lana, praktikei buruzko hausnarketa eta lanerako espazioak eta mekanismo egokiak finkatu.</p>
<p>3. LIDERGO PEDAGOGIKOA</p> <p>Baldintzak sortu ikastetxeak ikasle bakoitzari ahalik eta hezkuntza-erantzunik onena eman diezaion, eragile hezitzaileen esku-hartzearen bidez.</p>	<p>K3.1. Evidentzietan oinarritutako praktikatik abiatuta ikas-prozesuen planifikazioa, hedapena, ebaluazioa eta egokitzapena lideratu.</p> <p>K3.2. Ikasleen konpetentzien garapenaren jarraipena egiteko ebaluazio-hezitzailea sustatu.</p> <p>K3.3. Curriculumaren ikuspegi pedagogiko bateratua hedatu.</p> <p>K3.4. Hezkuntza prozesuetan familien inplikazioa bilatu.</p> <p>K3.5. Hezkuntza Proiektutik eratorritako ikastetxeko ardatzak (berdintasuna, hizkuntza, jasangarritasuna...) ikas-prozesuetan integratu.</p>
<p>4. LIDERGO PARTEKATUA</p> <p>Elkarlanean ikastetxeko komunitateko kideen arteko elkarlana eta ardurak banatu inplikazioa eta pertenezia sentimendua sustatzeko</p>	<p>K4.1. Pertsonak ezagutu euren talentuaren eta gaitasunen arabera erantzukizunak banatu.</p> <p>K4.2. Pertsonak errekonozitu, inspiratu eta motibatuz.</p> <p>K4.3. Pertenezia eta inplikazio sentimendua garatzeko komunitateko kideen artean konfiantzazko harremanak ahalbidetu.</p> <p>K4.4. Hezkuntza-komunitateko pertsonen ezagutzaren transmisioa bermatu.</p>
<p>5. IKASLE GUZTIEN ARRAKASTA</p> <p>Inklusioa, ekitatea eta justizia-sozialerako hezkuntza lidergoa garatu, ikasle guztien arrakasta bermatuko duten baldintzak bultzatuz.</p>	<p>K5.1. Ikasleekiko espektatiba handiak oinarri, ikasle bakoitzari hezkuntza-erantzun egokiena emango zaiola bermatzeko neurriak sustatu.</p> <p>K5.2. Aniztasunari erantzuteko eta desberdintasunak orekatzeko, inklusioaren printzipioak egunerokotasunean kontuan hartzen direla egiaztatu.</p> <p>K5.3. Irakasle guztiek eta une oro ikasleen orientazioa eta tutoretza egiten dutela oinarritu.</p>
<p>6. PRINTZPIO ETIKOAK</p> <p>Eredugarritasunez eta gardentasunez, arau etikoak kontuan hartuta, hezkuntza komunitatearen ongizatea bermatu.</p>	<p>K6.1. Ikastetxeko kode etikoa zehaztu, garatu eta hedatu eta horren arabera hezkuntza-komunitatearen ongizatea bilatu.</p> <p>K6.2. Eredugarritasunez jokatu.</p> <p>K6.3. Harremanetan inbertitu, bide berriak bilatu eta gogoeta egin.</p> <p>K6.4. Pentsamendu kritikoz jokatu, informazioa modu objektiboan eta hausnartuan aztertu eta erabaki informatuak hartu.</p>

<p>7. ELKARBIZITZA POSITIBOA</p> <p>Ikastetxeko giroa zaindu eta hezkuntza komunitatearen ongizatea bilatu.</p>	<p>K7.1. Ikastetxeko elkarbizitza helburuen jarraipen sistematikoa egin.</p> <p>K7.2. Elkarrekiko errespetuan, lankidetzan, tolerantzian eta enpatian oinarritutako eskola-giroa sortu.</p> <p>K7.3. Gatazkei ikuspegi eraikitzailetik erantzun eta probentzioari lehentasuna ematen zaiola ziurtatu.</p> <p>K7.4. Eraginkortasunez komunikatu era argi eta asertiboan eta entzumen aktiboa praktikatu.</p>
<p>8. ELKARREKIN IKASTEN DUEN KOMUNITATEA</p> <p>Berrikuntza eta komunitatearen elkarren arteko prestakuntza bultzatuz kideen garapen pertsonal, sozial eta profesionalaren kultura sustatu.</p>	<p>K8.1. Elkarrekin ikasten duen komunitateko kideen garapenerako plana eraiki, hedatu eta doitu.</p> <p>K8.2. Komunitatearen ezagutza, berrikuntza eta ikerketa pedagogikoekin lotutako hobekuntzak inplementatzea ahalbidetu.</p> <p>K8.3. Irakasleen etengabeko garapen profesionalean ibilbide propioa bultzatu eta parte-hartze aktiboa indartu.</p> <p>K8.4. Ikaskuntza kolaboratiboan irakaskuntza-praktika suspertu.</p>
<p>9. PARTE-HARTZE DEMOKRATIKOA</p> <p>Erbakiak hartzean eta hezkuntza-prozesuetan hezkuntza-komunitatea inplikatu eta elkarriketarako zein eztabaidarako guneak sortu eta komunikazio bide eraginkorrak ezarri.</p>	<p>K9.1. Ikasleak euren ikaskuntza prozesuaren protagonista izan daitezen bideak ahalbidetu.</p> <p>K9.2. Ikastetxeko egituretan, bakoitzari dagokion heinean, eskola-komunitateko kide guztien parte-hartzea aktibatu.</p> <p>K9.3. Ikastetxeko komunikazio bide eraginkorrak ahalbidetzeko barneko nahiz kanpoko komunikazio plana eratu, jarraipena egin eta doitu.</p> <p>K9.4. Komunitateko kideen arteko sareak ahalbidetu.</p>
<p>10. KANPO HARREMANAK</p> <p>Beste ikastetxeekin, gizarte-ingurunearekin eta administrazioarekin lankidetzan aritu.</p>	<p>K10.1. Hezkuntza-sareetan zein beste ikastetxeekin lankidetzan aritu, ezagutza eta esperientzia partekatu.</p> <p>K10.2. Ikasleen ibilbideko ikastetxeekin koordinatu, harreman sendoak izan eta trantsiziorako planak zehaztu.</p> <p>K10.3. Gizarte-inguruneako erakunde, elkarte, giza-eragile, pertsonekin... ezagutza partekatu, kolaboratu eta heziketaren alde formala zein ez-formala uztartu.</p> <p>K10.4. Ikastetxean administrazioa ordezkatu eta administrazioaren aurrean ikastetxeko komunitatearen ordezkari.</p>

2. ERANSKINA

DATU BILKETA EGITEKO LAGUNTZA-TAULA

EREMUA	ALDAGAI-MULTZOAK	TRESNAK ¹	AMIA ²
Ikaskuntza prozesua	<ul style="list-style-type: none"> • Curriculumaren garapena <ul style="list-style-type: none"> • Curriculum printzipioak ikastetxean aplikatzen ari diren aztertu eta zenbatu 	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarrizketak: <ul style="list-style-type: none"> • Ikasketa-burutzarekin • Batzorde pedagogikoa • Mintegiak / Zikloak 	B
	<ul style="list-style-type: none"> • Emaitza akademikoak <ul style="list-style-type: none"> • Ebaluatu emaitza akademikoak etapa, maila eta ikastaldeko • Kanpo ebaluazioen azterketa 	<ul style="list-style-type: none"> • Datu akademikoen aktak eta estatistikak [3. Txantiloia] <ul style="list-style-type: none"> • Promozio, errepikapen eta eskolaren uzte tasak ehunekotan zenbatuz 	B+K
	<ul style="list-style-type: none"> • Aniztasunari erantzuna <ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen aniztasuna artatzeko programak eta estrategiak aztertu eta zenbatu, beharizan bereziak dituzten ikasleentzat eta/edo kultura aniztasunekoak barne 	<ul style="list-style-type: none"> • Datu jasoketa (historikoa) [3. Txantiloia] <ul style="list-style-type: none"> • Bekadun kopurua (%) • Etorkin kop. • Kanpotar jatorriko familia • HBBE ikasleak • Egoera zaurgarrian dauden ikasleen kopurua • HPB ikasleen kopurua • Elkarrizketak: <ul style="list-style-type: none"> • Orientazio/Laguntza zerbitzua 	B
Bizikidetzeta + eta ongizatea	<ul style="list-style-type: none"> • Ongizate emozionala: <ul style="list-style-type: none"> • Irakasleak • Familiak ikasleak • Ikasleak • Langile ez-irakasleak 	<ul style="list-style-type: none"> • Asebetetze inkestak: <ul style="list-style-type: none"> • Irakasleak [4. Txantiloia] • Familiak [5. Txantiloia] • Ikasleak • Langile ez-irakasleak 	B
	<ul style="list-style-type: none"> • Prebentzio neurriak 	<ul style="list-style-type: none"> • BAT Taldearen azterketa • AJAren azterketa 	B
	<ul style="list-style-type: none"> • Gatazken kudeaketa 	<ul style="list-style-type: none"> • Datu objetiboak: <ul style="list-style-type: none"> • Jazarpen kasuen kopurua (0, A, B txostenak) • Jokabide suiziden kopurua • Familien asebetetze maila kudeatutako kasuetan • Hartutako neurri zuzentzaileen kopurua 	B
Hezkuntza berrikuntza	<ul style="list-style-type: none"> • Formazioa eta trebakuntza: <ul style="list-style-type: none"> • IUPen jasotzen den formazioak ba al du ondoren ikasleengan inpakturik? 	<ul style="list-style-type: none"> • IUP azken 4 urteetako historikoa jaso <ul style="list-style-type: none"> • Zenbat irakaslek hartu dute parte prestakuntzaren batean? • Zer nolako inpaktua izan du ikasleengan? • Ba al dago prestakuntza plan egituratu eta sistematiko bat? 	B
	<ul style="list-style-type: none"> • Irakasleen jardunaren ebaluazioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Irakaslearen profilaren azterketa 	B

¹ **Tresnak.** Erabili daitezkeen tresna posibleen bilduma aurkezten da. Egokienak izan daitezkeenak aukeratu (edo beste batzuk).

² **AMIA.** Aztertutako aldagaia barne ala kanpo analisisian kokatzeko proposamena. Kasu batzuetan aldagai zehatzaren baitan erabaki beharko da.

EREMUA	ALDAGAI-MULTZOAK	TRESNAK	AMIA
